

2.4. Irabazi iturriak.

Gure proiektuaren helburua haurrek ur gehiago edatea sustatzea da, eta horretarako diseinatu dugun armairu adimendunak hainbat modu ditu diru-sarrerak sortzeko. Edozein enpresak honako galdera egin beharko lioke bere buruari: zenbat eta nola ordaintzeko prest egongo da gure bezero potentziala eskaintzen diogun produktu edo zerbitzuaren truke?

Funtsean, gure kasuan bi diru-sarrera mota nagusi identifika ditzakegu:

1. Ordainketa bakarraren bidezko sarrerak:

- Haur hezkuntzako ikastetxeek armairu adimenduna erosi dezakete aldi bakarrean.
- Salmenta honek irabazi zuzenak sortzen ditu, armairuaren prezioaren truke.

2. Ordainketa errepikarien bidezko sarrerak:

- Harpidetzak: ikastetxeek hilero edo urtean ordain dezakete armairuaren mantentze-lan, eta sistema digitalaren datuen jarraipena jasotzeko.
- Komisio edo erabilera-prima: adibidez, haur bakoitzak ura edateko erabilera maximo bat du, sistema automatikoak kontsumo datuak kudeatzeagatik kuota txiki bat kobratzen ditu.
- Etorkizunean aplikazio digitala gehitzen badugu, datuak gurasoekin partekatzeko, harpidetzagatik sarrerak handitu daitezke, eta baita sari-sistemaren bidezko motibazioa ere (pegatinak, puntu osasuntsuak).

Beste irabazi iturriak:

- Aktiboen salmenta: botilen eta bestelako osagarrien saltzea.
- Renting edo alokairua: ikastetxeek armairua alokatu dezakete, ez erosi.
- Publizitatea: etorkizunean, sistema digitaleko interfazeen iragarkiak agertzea, adibidez, ohitura osasuntsuak sustatzeko.

Diru-laguntza posibleak eta hasierako inbertsioa:

Kontuan hartuta goi mailako haur hezkuntzako 2. mailako ikasleak gairela eta ez dugula diru-errekurtso askorik, gure lehen inbertsioa oso apala eta errealista izango da. Horretarako, hiru iturri erabiliko ditugu:

- Gure ekarpen txikiak: ikasle bakoitzak ahal duen kopuru sinbolikoa ekarriz.
- Ikastetxearen laguntza: eskolak eskaintzen dituen baliabide teknikoak edo materialak aprobetxatuz.
- Diru-laguntzak: ikasleen proiektu eta ekintzailatza ekimenei zuzendutako udal edo ikastetxeko laguntzak eskuratuz. Besteak beste, gazte ekintzaileak eta emakumeak izateagatik.

Hasierako laguntza hauei esker, prototipoa eta oinarritzko materialak finantzatu ahal izango ditugu, eta gero proiektuaren diru-sarrerara propioak etorriko dira.

Laburbilduz, gure proiektuak hainbat modu eskaintzen ditu diru-sarrerak sortzeko, bai ordainketa bakarretan, bai ordainketa errepikakorretan, eta horrek aukera ematen digu proiektuaren jarraikortasuna eta etekina bermatzeko.

ITURRIAK →

STARTInnova. (s. f.). <https://www.startinnova.com/>

TuLibrodeFP, SLU. (s. f.). *IPE II 2025*.

<https://libreria.tulibrodefp.es/inicio/287-ipe-ii-2025.html>